Zenb_Num: 32 2018ko urria
OROZKOKO UDAL ALDIZKARIA www.orozko.eus

# orozkogaur



## Sanantolinen balorazio positiboa egin du Udalak

Antolinzaleak Jai Batzordeak zein Orozkoko Udalak sanantolinen balorazio "bikaina" egin dute. Batez ere partaidetza zabala nabarmendu da.

Azpimarratu dute zorte handia izan dela eguraldia lagun izan izana jai egunetan. Ekintza guztiak aurreikusita zeuden moduan eta behar bezala garatzeko aukera eskaini du eguraldi onak eta, horri esker, jendea gehiago animatu da ekintzetan parte hartzera. Aurten San Antolin egunean nabaritu da hori bereziki. Egun horretan eskupilota partidak, garrafa lehiaketa, Laudioko San Roke Musika Elkartearen emanaldia eta zekorketak izan ziren, besteak beste.

Aurten ere zekorketek, hain zuzen ere, arrakasta handia lortu dute. Larunbateko ikuskizuna izan zen bereziki arrakastatsua. Hala ere, musika emanaldiak izan dira jende gehien elkartu duten ekitaldiak eta Umeen Eguna alaienetarikoa izan da, uneoro egon baitira ondo pasatzeko proposamenak.

**Pintura lehiaketa**

Horrez gain, udalak nabarmendu du Aire Libreko pintura lehiaketako lehenengo edizioak lortutako arrakasta. Izan ere, 25 partaidek aurkeztu zituzten obrak.

Bereziki garrantzitsua da ez dela eraso sexistarik salatu egun horietan, eta Gurutze Gorriaren arreta postuan ez dela kasu larririk artatu behar izan. "Giro sanoa egon da orokorrean", ondorioztatu du Orozkoko udalak.

## Orozko y Cruz Roja cierran un convenio de colaboración

El Ayuntamiento de Orozko y Cruz Roja han firmado un acuerdo para colaborar en pro del bienestar de la ciudadanía mediante múltiples actividades dirigidas a servicios asistenciales, sanitarios y sociales. Así, Cruz Roja ofrecerá cobertura en los actos públicos que se celebren, brindará atención a los colectivos con dificultades de intergación, colaborará en programas de prevención y formación, así como en acompañamientos o la gestión de suministros, entre muchos otros. La agrupación, por tanto, pondrá a disposición de Orozko y su ciudadanía sus recursos materiales, su infraestructura y el personal voluntario para la mejora del bienestar. Orozko abonará 6.050€ anuales por estos servicios.



# El nuevo centro de salud entra en la última fase de preparativos



Se prevé que el próximo 5 de octubre finalice la obra del nuevo centro de salud. A partir de ahí, será Osakidetza quien dote el espacio del mobiliario y el personal para su puesta en marcha definitiva. El coste final de la obra será de 828.355,79€.

**Subvenciones**
De esa cantidad, 767.659,64€ corresponden a la obra y 60.696,15€ de la dirección de la misma. Los trabajos se han ejecutado en dos fases, una de movimiento de tierras y estructura y otra de construcción del resto del edificio. El Gobierno Vasco, a través del Área de Desarrollo Rural, ha subvencionado la obra con 99.200 (Fase I) y 249.939,16€ (Fase II). El total ha sido de 349.139,16€. Por otra parte, el departamento de Administración pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su programa destinado a infraestructuras Azpiegiturak, ha aportado al proyecto, 42.345,8€ para la Fase I y 31.843,88 para la Fase II. En total, 74.189,68€.

Todo ello supone que el coste total de la obra para Orozko ha sido de 405.026,95€.

## Abierto el plazo del último trimestre del año 2018 para solicitar las AES

Las Ayudas de Emergencia Social o AES son prestaciones económicas destinadas a personas cuyos recursos son insuficientes para hacer frente a gastos necesarios para evitar situaciones de exclusión social. Entre esos se encuentran los gastos para el disfrute y el mantenimiento de la vivienda, la energía, el agua, o las necesidades primarias como la vestimenta.

Siempre se puede solicitar más información en los Servicios Sociales de Base del Ayuntamiento, pidiendo una cita en los números de teléfono 672 09 44 29 ó 94 633 96 33 o escribiendo por correo electrónico a orozko.gizarte@bizkaia.org.

## BetiON: Euskadiko Telelaguntza zerbitzu publikoa pertsona nagusien esku

Eusko Jaurlaritzak BetiON telelaguntza zerbitzua eskaintzen die bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonei. Horrela, egunean 24 ordutan eta urteko egun guztietan etengabeko arreta izango dute. 4 euroko kostea du hilean. 900 851 600 telefonora deituta eskuratu daiteke informazio gehiago.

## Familiei bideratutako orientazio zerbitzua eskuragarri dago

Orozkoko edozein familiak jo dezake udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen duen orientazio zerbitzura. 672 09 44 29 telefonora deituta eskuratu daiteke informazio gehiago.

## Emakumeen emaria




Bizkaiko Foru Aldundiak Ondarearen Europako Jardunaldien 18. edizioa antolatuko du aurten "Ondarea, emakumeen emaria" lemapean. Egitarauak emakumeek Bizkaiaren eraikuntza kulturalean duten zeregina aztertzea izango du helburu. Orozkon ere hainbat hitzordu izango dira. Informazio gehiago jaso edo izena emateko Orozkoko Museora jo beharko da, 94 633 98 23 telefonora deituta edo museoa. orozko@bizkaia.org helbidera idatzita. Plaza mugatuak daude lehenengo ekintzan izan ezik.

**6. ARROPA ZURITZEKO LANA**
Arropa nola garbitzen zen antzeztuko dute Orozkoko emakumeek
*10:00 Orozkoko Museoa.*

**21. ARTZAINTZA GORBEIAN: EMAKUMEEN BIDEXKAK.**
*10:00, Usabeleko aparkalekua*

**21. ELURRA, ELUR ZULOAK ETA GARRAFAK: EMAKUMEEN KONTUAK.**
Mendi ibilaldia Félix Mugurutzaren eskutik eta garrafa dastatzea.
*9:30 - 13:00, Orozkoko museoa*

**27. EMAKUMEAK ETA HERRI OHITURAK: MANUELA URIBARRIREN KASUA.**
Ibilbide gidatua eta hitzaldia Félix Mugurutzaren eskutik.
*18:00 - 21:00, Orozkoko udaletxea*

# Urrian auzo batzarrak egingo dira berriro



Auzo batzarren beste ziklo bat burutuko du Udalak urrian, herritarren eta tokiko erakundearen arteko komunikazioa hobetu eta partaidetza sustatzeko asmoz. Honakoan ere hainbat gai landuko dira saio horietan: egindako proiektuak eta aurrera begira egingo direka, pinuetako onddoak, muruetako biltzailea eta Zaloako errepidearen konponketa. Eskuratu daiteke informazio gehiago www.orozko.eus udal webgunean.

| | | |
|---|---|---|
| **Urriak 18** de octubre | Murueta (Sozialean) | 19:00 |
| **Urriak 19** de octubre | Goikiria (Txokoan) | 19:00 |
| **Urriak 20** de octubre | Zaloa (Ermitan) / Ibarra (Txokoan) | 10:00 / 12:00 |
| **Urriak 22** de octubre | Arbaitza (Txokoan) | 10:00 |
| **Urriak 27** de octubre | San Miguel (Ermitan) | 10:00 |

## Orozko visita Begués en la inauguración de la muestra tributo a Blas de Otero

Una delegación del Ayuntamiento de Orozko visitó durante el fin de semana del 14 al 16 de septiembre la localidad catalana de Begués con motivo de la inauguración de "Me queda la mirada", la exposición pictorica en honor a Blas de Otero. Esos días hubo recitales poéticos, conciertos, charlas y varios actos culturales como *castells*. En el proyecto de tributo están implicados ambos municipios, entre otras entidades, y se espera que de dicha experiencia positiva nazcan más iniciativas de intercambio en el futuro.



## Los presupuestos participativos recogerán aportaciones vecinales

Un año más, el Ayuntamiento de Orozko va a iniciar un proceso participativo de cara a elaborar los presupuestos municipales para el ejercicio 2019. El objetivo no es otro que fomentar que la ciudadanía de Orozko aporte sus ideas de inversión para el próximo año, decidienco así entre todos y todas qué hacer con el dinero del que se dispone. Además de acudiendo a las Asambleas de Barrio, se ofrece la posibilidad de aportar sugerencias escribiendo a errolda.orozko@bizkaia.org o rellenando una de las fichas disponibles en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del ayuntamiento. En cualquier caso las aportaciones se deberán realizar antes del viernes 19 de octubre.

## Laia eskola, emakumeen alduntzearen eta berdintasunaren alde lanean

Aiaraldeko Udalak, Aiarako Kuadrilak eta emakumeen elkarteek Laia Eskola ekimenaren 2. edizioa prestatu dute hurrengo hilabeteetarako eta egitarau zabala diseinatu dute eskualdeko herrietan. Proiektua Arabako Foru Aldundian jaio zen iaz berdintasuna sustatzearen helburuarekin formakuntzatik, emakumeen parte-hartze publikoa handituz eta indartuz gizartea eraldatzeko asmoz. Ekintza horietan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa izango da.

Orozkon horretarako aukera egongo da Berdintasun Arloan berdintasun.orozko@bizkaia.org e-posta helbidean edota 946 33 96 33 telefonora deituta.

**TUPPERSEX FEMINISTA**
*Urriaren 19an 17:00 - 20:30*
*Urriaren 20an 10:00 - 14:00*
• Urduñako Alondegia

**OSASUNA: ELKARREKIN AURRERA**
*Ostiralero, urriaren 19tik abenduaren 21eta 10:00etik 12:30era*
• Laudioko Herriko Plaza

**TXALAPARTA TAILERRA**
*Azaroaren 10a, 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00*
• Amurrioko Udala

**IRAKURKETA KLUBAK**
*Gaztelaniaz eta euskaraz.*
• Herri guztietan

**ESKUALDEKO TOPAKETA**
*Azaroaren 17an, 10:00 - 14:00*
• Aiarako Udala

# Ordutegi berria Induman, Ludotekan eta Gaztetxokoan




Induma informazio bulegoa zabalik egongo da astelehenetan 9:15etik 16:15era eta 18:30etik 20:30era. Astearte, ostegun eta ostiraletan 9:15etik 16:15era eta asteazkenetan 9:15etik 15:00ak arte eta arratsaldez 18:30etik 20:30era. Bestetik, 5 eta 10 urte bitarteko haurrei bideratutako Ludoteka zerbitzua zabalik egongo da larunbat eta igandeetan 11:00etatik 13:30era. Gaztetxokoak, 10 eta 16 urte arteko neska eta mutilentzat, ateak irekiko ditu ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00ak arte eta igandero 17:00etatik 19:00ak arte. Informazio gehiago eskuratu daiteke 946 33 99 45 telefonoan.

## La psicóloga Belén de Andrés ofrecerá un curso de 'Mindfullness'

La psicóloga y autora laudioarra Belén de Andrés guiará un curso de Mindfullness todos los lunes desde el 5 de noviembre al 17 de diciembre, en horario de 18:00 a 20:00. Será gratuito y estará dirigido a mujeres. Las inscripciones se podrán realizar desde el día 15 de octubre en Induma o escribiendo un e-mail a la dirección berdintasun.orozko@bizkaia.org. Además, el lunes 22 de octubre se hará una presentación del curso y sus obras a partir de las 19:00 en la Kultur Etxea.

## Euskaraldian izena emateko epea zabalik dago dagoeneko

Euskal hiztunen aktibazioa helburu duen '11 egun euskaraz' ekintza soziala abiatuko dute Euskal Herriko hainbat erakundek aurtengo azaroaren 23tik abenduaren 3ra, baita Orozkoko Udalak ere. Herritarrek ekimen horretan izena emateko aukera dute dagoeneko eta Belarriprest -euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen dutenak- edo Ahobizi -euskaraz hitz egiten dutenak- figuretako bat hautatu beharko dute horretarako. Jaso daiteke informazio gehiago www.euskaraldia.eus gunean edota Orozkoko Udaleko Euskara Arloan.

# agenda

**6.** **COLADA TRADICIONAL**
Jornadas Europeas de Patrimonio, JEP. Escenificación por mujeres de Orozko.
*10:00 Orozkoko Museoa.*

**7.** **XXX. IRAUPEN MENDI IBILALDIA**
Itxinape Mendi Taldeak antolatuta. 4an itxiko da izena emateko epea.
*7:30 Zubiaur plaza.*

**21.** **RUTA GUIADA A PIE**
JEP: "Pastoreo en Gorbeia, senderos de mujeres". Reservas: 946 12 26 95.
*10:00 Aparcamiento de Usabel.*

**21.** **RUTA GUIADA Y DEGUSTACIÓN**
JEP: "Nieve, neveras y garrafas: Cosas de mujeres". Reservas: 946 33 98 23.
*9:30 - 13:00 Orozkoko Museoa.*

**22.** **BELÉN ANDRÉSEN AURKEZPENA**
Bere obrak aurkeztu eta Mindfullness ikastaroa inauguratuko du.
*19:00. Kultur Etxea.*

**27.** **RUTA GUIADA**
JEP: "Mujeres y costumbres. El caso de Manuela Ulibarri" Reservas: 946 33 98 23.
*18:00 - 21:00 Ayuntamiento.*

**28.** **GAZTAIN EGUNA 2018**
III. Kultur arteko trukea: Donaixti-Ibarreko eta Ubixeta dantza taldeetako ikuskizuna. Supelaur eta Udalak antolatuta.
*12:00 Zubiaur plaza.*








